



Kontzertu eta Hitzarmen Ekonomikoari buruzko jardunaldiak

(Sessions on the General and Economic Agreements)

AIZEGA ZUBILLAGA, Joxe Mari

Finantza eta Tributu Zuzenbidean doktorea
Kontzertu eta Hitzarmen Ekonomikoari buruzko jardunaldien koordinatzailea
Mondragon Unibertsitatea
Larraña, 16
20560 Oñati
aizega@mcc.es

BIBLID [1137-1951 (2001), 8; 109-116]

Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko foru lurraldeen arteko erlazio finantzario eta tributarioak arautzen dituen Kontzertu Ekonomikoaren Legeak 2001eko abenduaren 31n galduko duenez indarra, eta beraz berri bat prestatu behar izango denez, hausnarketa saio bat egiteko jardunaldiak izan dira hainbat hiritan Kontzertu Ekonomikoaren eta Nafarroako Hitzarmenaren inguruan.

Dado que la vigencia del Concierto Económico regulador de las relaciones financieras y tributarias entre el Estado y los territorios forales de la Comunidad Autónoma Vasca expira el 31 de diciembre del 2001, y ante la necesidad de confeccionar una nueva ley al respecto, han tenido lugar una serie de jornadas dirigidas a reflexionar acerca tanto del Concierto como del Convenio Económico.

Etant donné que la validité du Concert Economique régulateur des relations financières et tributaires entre l'Etat et les territoires "forales" de la Communauté Autonome Basque expire le 31 décembre 2001, et avant la nécessité de confectionner une nouvelle loi à ce sujet, ont eu lieu une série de journées consacrées à étudier aussi bien le Concert que l'Accord Economique.

1. Sarrera. 2. Iruñako jardunaldia. 3. Bigarren jardunaldia. 4. Hirugarren jardunaldia. 5. Laugarren jardunaldia. 6. Amaitzeko.

1. Sarrera

Egun indarrean dagoen Kontzertu edo Itun Ekonomikoa 1981eko lege batek arautzen du. Lege honek arautzen ditu formalki Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten foru-lurraldeen arteko erlazio finantzario eta tributarioak. Nafarroako Foru Komunitateak Estatuarekin bere "kontzertu" sistema ere badu, nahiz eta ez den Kontzertu Ekonomikoa deitzen, Hitzarmen Ekonomikoa baizik. Hala ere, sistema berbera da.

Ez da ahaztu behar Kontzertu Ekonomikoaren jatorri historikoa. Foruen desagertzea eta ogasun foralak Estatuaren ogasunean integratze saiakeraren ondorioz sortzen da Kontzertua. Sustrai historiko hau espresuki aurreikusten da Espainiar Konstituzioan, zehazki bere lehenengo xedapen gehigarrian, non esaten den Konstituzioak foru-lurraldeen eskubide historikoak babesten eta errespetatzen dituela. Euskal Autonomia Estatuaren ere esanbidez aipatzen da, "Estatuaren eta Euskal Herriaren arteko zerga mailako erlazioak Kontzertu Ekonomiko edo Itunen bidezko sistema tradizionalaren bidez arautuko direla".

Beraz, esan bezala, egun indarrean dagoen Kontzertu Ekonomikoa 1981eko 12 Legean arautzen da. Lege honek 20 urteko iraupen aldia du. Ondorioz, Kontzertu Ekonomikoaren iraupena 2001. urteko abenduaren 31n amaitzen da, eta beharrezkoa izango da beste Kontzertu Ekonomiko bat onartzea, edo, beste modu batetan esanda, dagoen Kontzertua berritzea.

Hau horrela izanik, une hau bereziki egokia izan da Kontzertuaren inguruan azterketa eta hausnarketa sakon bat egiteko. Hori da behintzat 2000. urteko maiatza aldera Eusko Ikaskuntzaren baitan uste izan genuena. Foru-lurraldeetako eta Estatuaren ordezkariek Kontzertua berritzeko negoziaketa prozesu bat hasi beharko zutenez, une bereziki aproposa zen Kontzertuak suposatzen duenaren inguruan gogoeta bat egiteko, berari buruz zein iritzi plazaratu diren aztertze, eta bere etorkizunari buruz hitz egiteko. Aldi berean, hausnarketak ez zuen soilik Kontzertu Ekonomikora mugatu behar, eta Nafarroako Hitzarmena ere kontuan hartu behar zuen.

Azterketa tekniko batez gain, beharrezkoa zen Kontzertua gizartean ezagutaraztea ere.

Gehienetan Kontzertuaren irudia distortsionatua azaltzen da, hedabideetan arazoa eta liskarra sortzen direnean hitz egiten baita Kontzertuari buruz. Era berean, zenbaitetan Kontzertua pribilegioarekin identifikatzen da, batik bat Estatuaren hedabideetan. Hau guztia kontuan izanda, Kontzertuaren inguruan egin beharreko hausnarketak, azterketa teknikoa eta dibulgazioa konbinatu behar zituen.

Eusko Ikaskuntzan, Zuzenbide eta Ekonomia Sailak ordezkariorik aipaturiko hausnarketa hau egin genuen 2000. urteko maiatzean. Berehala hitz egin genuen euskal eta nafar erakundeekin, gure egitasmoa aurkezteko; alegia, ardatz gisa Kontzertua eta Hitzarmena izango zituen jarduera egitasmo bat aurrera ateratzea. Erakundearen babes osoa jaso ondoren, hurrengo lehenengo azalduko ditudan jardunaldiak antolatzeari ekin genion. Lau jardunaldi guztira, bakoitza foru-lurraldeetako hiri batean. Lehenengoa Iruñan eta azkenekoa Gasteizen, beste biak Bilbon eta Donostian. Jardunaldi bakoitzak Kontzertuaren alderdi bat aztertu zuen monografikoki.

2. Iruñako jardunaldia

Lehenengo jardunaldia Iruñan izan zen. Kontzertu eta Hitzarmen Ekonomikoaren erabilpenaren inguruko hausnarketa sakontzea zen bere helburua. Jardunaldiaren izenburutzat hautatu genuenak nahiko argi uzten du helburu hori: "Kontzertu eta Hitzarmen Ekonomikoaren ezarpenaren balantzea".

Ekitaldiaren aurkezpena Mikel Aramburu jaunak, Nafarroan Eusko Ikaskuntzaren lehendakariorde denak egin zuen. Aramburu jaunak azpimarratu zuen bereziki egokia zela Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren autogobernurako oinarrizko tresna den erakundeari buruzko azterketa sakon eta sistematiko bat egitea, egungo Kontzertuaren 20 urteek eta Hitzarmenaren 10 urteek nahikoa gai ematen dutelako erakunde hauen azterketa sakon bat burutuz eta beraien ezagupena hobetuz etapa berriei aurre egiteko.

Jardunaldia Iruñan ospatu zenez, irekiera formala Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak, Antonio Pérez Prados jaunak, egin zuen, hitzaldi labur baten bidez.

Aurkezpenen ondoren, jardunaldiaren lehenengo mintzaldi teknikoa Jose Antonio Asiain jaunak eman zuen. Asiain jaunak Nafarroako Gobernuaren Ekonomia eta Ogasun kontseilaria zen Hitzarmen Ekonomikoa negoziatu zenean. Bere hitzaldian, negoziazioaren inguruko zehaztasun anitz eskaini zituen, soilik berak

bezalako partehartze zuzena izan zuen pertsona batek ezagutu zitzaizkeenak. Berak aipatutako datu eta gogoeta guztietatik ondorengoak nabarmenduko nituzke: 1990eko Hitzarmena lantzeko ekimena Nafarroako Gobernuarena izan zen, konturatu baitzen Nafarroak eskuratu behar zituen kompetentzia berriek suposatuko zuten kosteei aurre egiteko, batik bat hezkuntza eta osasuna, beharrezkoa zela hitzarmen berri bat. Hitzarmena negoziatzeko osatu zen batzordean Nafarroako Legebiltzarrean ordezkariak zituzten alderdi politiko guztietako ordezkariak parte hartu zuten, helburua adostasun zabala lortzea baitzen. Asiain jaunaren iritziz, urteek frogatu dute hitzartu zen agiriak Nafarroako autogobernua eta Estatuko beste herrialdeekiko solidaritatea bermatu dituela.

Bigarren hizlariak, Jose Ramon Lopez Larrinagak, Kontzertu Ekonomikoaren negoziaketan izandako eskarmentua azaldu zuen. Lopez Larrinaga jauna Eusko Jaurlaritzako Ogasun kontseilariordea zen Kontzertua negoziatu zen unean, eta helburu horretarako osatu zen batzordeko partaidea. Bere hitzaldia bi zatitan banatu zuen: lehenengoa negoziaketa prozesuaren azalpen historikoaren inguruan, eta bigarrena Kontzertuaren ondorengo negoziaketan aurkez daitezkeen arazoaren inguruan. Azalpen historikoari dagokionez, bere hitzalditik ondorengo iritziak azpimarratuko nituzke: euskal batzordea osatzen zutenek Estatuko batzordekoek baino eskarmentu gutxiago zutela negoziaketa politikoetan, baina askoz ere motibazio gehiago, oso argi baitzeukaten euskal gizartearen etorkizunerako oinarritzeko tresna bat izango zela adosten zuten Kontzertua. Teknikarien artean hainbat gauza adostu zituzten, baina une batean politikoen partehartzea beharrezkoa zela ikusi zen. Adolfo Suarez Estatuko presidentek negoziaketa prozesua bultzatzerakoan partehartze erabakigarria izan zuen. Zergen inguruko negoziaketa zaila izan bazen, gogorragoa izan zen oraindik finantzaketa eta kupoaren ingurukoa; azkenean, EAEak eskuratzen ez zituen eskuduntzak erreferentzi bezala hartzen zituen sistema bat onartu zen, % 6,24ko partaidetza adostuz. Lopez Larrinaga jaunak esan zuen beharrezkoa zela datorren negoziaketan erakundeen arteko adostasuna lortzea, bestela botere-hutsune bat gerta baitaiteke. Bestalde, Kontzertuaren iraupenak mugagabea izan behar duela defendatu zuen, eta euskal erakundeek Europar partaidetza izan behar dutela.

Ondoren, eragile sozialen txanda izan zen. Enpresarienez, zehazki CONFEBASKen izenean, bere idazkari orokorra aritu zen, Guillermo Zubia jauna. Sindikatuen izenean, aldiz, Nekane Jurado andrea, LABeko ordezkaria.

Zubia jaunak esan zuen oro har Kontzertuaren erabilpen egokia egin dutela euskal

erakundeek. Euskal Ogasunaren antolakuntzarako oso garrantzitsuak izan diren arauak onartu dira eta enpresen jarduerara bultzatzeko neurri aproposak onartu izan dira, batik bat Sozietateen gaineko Zergan. Aldiz, bere ustez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren inguruan ez da araudi egokia onartu, Estatuko zergak baino presio fiskal handiagoa ezartzen baitu. Aldi berean, euskal erakundeek Europako erakundeetan partaidetza zuzenagoa izan behar dutela aldarrikatu zuen.

Jurado andreak, aldiz, Kontzertua Estatuarekin ditugun erlazio finantziarioen zati bat besterik ez dela gogoratuz hasi zuen bere hitzaldia. Bere iritziz, nahiz eta Kontzertuak eta Hitzarmenak tributu mailako eskuduntza araugilea onartu, eskuduntza hau oso mugatua dago Estatuko legediagatik. Foru-erakundeen ahalmena, esaten dena baino askoz ere txikiagoa da. Aldi berean, kupoaren ondorioz, Estatuaren esku uzten da foru-lurraldeek zenbat ordaindu behar duten erabakitzea. Adibidez, Estatu espainiarrak defentsako gastuak handitzen baditu, foru-erakundeek, nahi eta nahi ez, portzentaje bat ordaindu behar dute. Adierazpen honen harian azpimarratu zuen orain arte Kontzertu eta Hitzarmenaren erabilpena enpresa munduaren onerako egin dela, langileria ahaztuz.

Jarraian hitz egin zutenek ikuspegi ekonomikoa izan zuten ardatz nagusi: Juan Miguel Bilbao jauna, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza kontseilariordea dena, eta Blas Los Arcos, Nafarroako Gobernuaren Ogasun auzendaria dena. Bi hizlariak hainbat datu azaldu zituzten, argi utziaz Kontzertuaren eta Hitzarmenaren garrantzi ekonomikoa. Ez ditugu hemen han azaldu ziren datuak errepikatuko. Soilik azpimarratuko dugu mugitzen diren baliabideak milaka milioi pezetetan zenbatzen direla, eta foru-gobernu sistema konplikatu finantzatzeko balio dutela.

Azkenik, jardunaldia amaitzeko, foru-erakundeetako arduradunek hitz egin zuten. Partaidetza ezberdinak koordinatzen Gregorio Monreal jauna aritu zen, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Zuzenbidearen Historiako Katedraduna. Monreal jaunak ikuspegi historikotik oinarrituko zuen Kontzertua eta Hitzarmena batera aztertzearen egokitasuna.

Erakundeetako arduradunen artean, lehenengo partaidea, Jose Javier Armendariz jauna izan zen, Nafarroako Tributu Ogasuneko zuzendaria. Bere iritziz, 1990eko Hitzarmena Foru-Erkidegoak jaso behar zituen kompetentzia berrien ondorioa izan zen. Etorkizunari begira, Hitzarmenak "ekonomia berriak" ekarriko dituen aldaketa fiskalei egin beharko die aurre. Aldi berean, Estatuko administrazioarekin dagoen gatazka maila gutxitu egin beharko da, presio fiskala bezalako kontzeptuak argituz. Azkenik,

ahalegin berezi bat egin beharko da foru-erakundeek europar esparruan izan behar duten partaidetza definitzeko.

Javier Moreno jaunak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lege eta Zerga Politikako zuzendariak, foru-erakundeek duten arau ahalmenaren erabilpena aztertu zuen. Horretarako, bere iritziz, kontuan izan behar da Kontzertua hogeitau urte hauetan bost aldiz aldatu dela, foru-erakundeen eskumenak zabalduz. Berak lau aro desberdin zituen, hauetatik aktiboenak azkeneko biak. Hirugarrenean, 1990etik 1997rakoan, pizgarri fiskal mailako neurri asko onartu ziren, euskal ekonomia jasaten ari zen une gogorrei aurre egiteko. 1997tik aurrera, arau-ahalmenaren erabilpenean sakondu da, zergen artean garrantzitsuen den Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren berezko arau bat onartuz. Azkenik, azpimarratu zuen EAE osatzen duten hiru lurraldeetako arau fiskalak koordinatzeko egiten den ahalegina, nahiz eta maiz zergadunek harmonizazio handiagoa eskatzen duten.

Jarraian, Javier Muguruza jaunak, Bizkaiko Ogasun zuzendariak, hartu zuen parte, foru-administrazio fiskalaren bilakaera aztertuz. Bere iritziz, Kontzertuaren negoziaketa amaitu zenean Aldundiek administrazio berri propio bat antolatu behar izan zuten, Kontzertuak esleitzen zizkien eskuduntzei aurre egiteko. Egitasmo honetarako, ordura arte Estatuko administrazioan zeuden funtzionarioak Aldundietara transferitzeari ekin zitzaion. Haietako asko igaro ziren foru-administrazioa. Hala ere, bai orduan eta baita gaur egun ere, foru-administrazioak txikiak dira, pertsona gutxi osatzen dituzte, eta zergadunarekin tratu zuzen eta pertsonala izaten saiatzen dira. Hizlariaren ustez, azpimarratu beharrekoak dira administrazioen arteko erlazio zuzenak ere, bai koordinazio lanetarako eta baita zergadunen arazoak konpontzen saiatzeko beharrezko direnak.

Arabako Ogasun zuzendaria den Angel Barrasa izan zen parte hartzen hurrengoa. Barrasa jaunak "Hitzarmen edo Bake fiskalari" buruz hitz egin zuen. "Hitzarmen fiskala" Eusko Jaurlaritzaren eta Estatuko administrazioaren artean 2000. urteko urtarrilean sinaturiko ituna da. Itun honek administrazioen arteko liskarrari amaiera ematea zuen helburu, eta, batik bat, Europa mailan Luxemburgoko Justizia Auzitegiaren sententzia baten hurbiltasunak sor zitzakeen arazoei irtenbidea bilatzea. Barrasa jaunak ituna oso positibo bezala balioetsi zuen, eta etorkizunean administrazioen arteko erlazioek jarraitu beharreko eredutzat aldarrikatu zuen.

Azkenik, Estatuko Administrazioiko Erakunde Erlazioetako arduradunak, Jose Maria Serena Puig jaunak, hitz egin zuen. Estatuak tarteratu dituen errekurtsioak negatiboki baloratu zituen, batik bat tarteratzerakoan erabili izan diren

arrazoiak kontuan izanda. Europar eraikuntzak eta zerga-harmonizazio prozesuak foru-erakundeen ahalmenean izan dezakeen eragina ere azpimarratu zuen.

Jardunaldiaren amaiera hitzaldia Francisco Iribarren jaunak, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun kontseilaria denak, eman zuen. Bere hitzaldian Hitzarmenaren garrantzia azpimarratzeaz gain, erakunde honek Nafarroarentzat burujabetasun finantzarioa eskaintzen duela aldarrikatu zuen, baina baita bere erabilpenean erantzukizuna ere. Administrazioen jakitea eta seriotasuna galdatzen dituela adierazi zuen.

3. Bigarren jardunaldia

Egitarauko bigarren jardunaldia Bilbon ospatu zen, "Estatuarekin tributu-erlazioen artikulazioa: Kontzertua eta Hitzarmena" izenburupean. Jardunaldiaren helburua, Kontzertu Ekonomikoaren izaera aztertea eta azken hogeitau urte hauetan eztabaida gehien sortu duten gaietan sakontzea zen.

Javier Urizarbarrena jauna, Bizkaiko Foru-Aldundiko Ogasun eta Finantzen ahalgizona, izan zen jardunaldia irekitzearan arduraduna. Bere hitzaldian aipatu zuen espainiar Estatuko ordezkariak ez dutela inoiz Kontzertuan sinetsi, eta horren isla direla tarteratu dituzten errekurtsio ugariak, guztiak Kontzertuaren edukia hustutzeko helburuarekin. Kontzertua jasaten ari den egoeratik ateratzeko beharrezkoa da, bere ustez: arau foralei lege izaera esleitzea, soilik Auzitegi Konstituzionalaren aurrean errekurri daitezten; Kontzertuaren eredia Europar Batasunean onartzea; eta azkenik, Estatuko administrazioaren aldetik jarrera berri bat.

Ondoren Joseba Agirreazkuenaga jaunak, Euskal Herriko Unibertsitateko Historiako Katedradunak, hartu zuen parte. Bere hitzaldian Kontzertu eta Hitzarmenaren inguruko hausnarketa historikoa egin zuen. Bere iritziz, Kontzertuak eta Hitzarmenak XIX. mendean eraikitzen ari zen nazio-estatu liberalean juridikoki onarturiko subjektu kolektiboen arteko ogasun mailako erlazioak definitzeko balio izan dute. Agirreazkuenaga irakasleak foru-ogasunen sortze prozesuan hiru aro ezberdin zituen: aniztasun fiskala, jauntxoaren ogasun bezala kontsideratzen dena; Austriarren eta Borboitarren espainiar monarkia; eta azkenik, iraultza liberala, batasunaren eta uniformitatearen ideietan oinarritzen dena. Bere hitzaldian Kontzertuak jasan dituen une historiko ezberdinetan sakondu zuen, zehaztasun anitz eskainiaz.

Jarraian, Eugenio Simon Acosta, Nafarroako Unibertsitateko Finantza eta Tributu

Zuzenbideko Katedradunaren, txanda izan zen. Kontzertua jurisprudentziaren ikuspegitik aztertu zuen, auzitegien sententzietan jasotzen diren interpretazioak aztertuz. Bere iritziz, kontzertua indefinizioan mugitu izan da beti. Eskubide historikoen formularen aurka agertu zen, eskubideak eskubide izan baitaitezke soilik gaur egungoak baldin badira, eta ez historikoak badira. Bestetik, aipatu zuen Auzitegi Konstituzionalak onartzen duela marko konstituzionalaren barruan foru-erregimenak gainontzeko autonomia erkidegoen sistemekiko ezberdina izatea. Kontzertuak mugak bi aldeentzat suposatzen dituela ere azpimarratu zuen; alegia, foru-lurraldeentzat eta Estatuko administrazioarentzat. Ondoren, Kontzertuak foru-ahalmen araugilearentzat ezartzen dituen mugak zehaztu zituen, banan-banan sakonean aztertuz.

Hurrengo hizlaria Iñaki Lasagabaster jauna izan zen, Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Administratiboko Katedraduna. Lasagabaster jaunak Kontzertuak ikuspegi juridiko eta jurisprudentzialetik egun dituen arazoak aztertu zituen, bai harmonizazio irizpideak, bai arau foralen erregelamendu izaera, eta gainontzeko mugak. Ondoren, egungo egoera gainditzeko hainbat ideia proposatu zituen.

Askotan, Kontzertuaren inguruan eman izan diren eztabaidek presio fiskala izaten dute ardatz nagusi. Presio fiskala izan zen hurrengo hizlariak, Ignacio Zubiri jaunak, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomiako Katedradun denak, aztertu zuena. Zubiri jaunak presio fiskalaren kontzeptua definitzerakoan ematen diren arazoak azaldu zituen, ez baitago adostasunik nola kalkulatu behar den erabakitzerakoan. Aipatu zuen "presio fiskal" kontzeptuari ematen zaion interpretazioaren arabera posible dela edozein pizgarri fiskalek presio fiskala baxutzen duela esatea, pizgarri fiskalak zergadunak ordaindu beharreko zama fiskala murrizten baitu. Hala ere, bere iritziz, egin diren ikerketek argi utzi dute EAEan zergadunek jasaten duten presio fiskala Estatukoa baino handiagoa dela, eta beraz ez dela egia hainbatetan esaten dena; alegia, Kontzertuaren ondorioz zerga gutxiago ordaintzen dela Euskal Autonomia Erkidegoan.

Kontzertuak jasaten dituen liskarren inguruan, jardunaldi honetan, foru-erakundeetako ordezkariak ere beraien iritzia plazaratu zuten.

Elena Reta andreak, Gipuzkoako Aldundiko Arau-Garapenaren arduradunak, "Tributu mailako lurralde historikoen erlazioak" aztertu zituen. Lehenik, foru-lurraldeek duten ahalmen araugilea eta zerga mailan Kontzertuak aurreikusten dituen lotura puntuen arteko kontraesana azpimarratu zuen. Aldarrikapen hau hainbat adibiderek argitu zuen. Ondoren, koordinazio eta harmonizazio araei buruz hitz

egin zuen. Bere ardura azaldu zuen, zergadunek zenbaitetan arazoak izan baititzakete zein Foru Aldundiren aurrean dauden obligatuak jakiterakoan, ez Kontzertuak ezta beste arauak ere ez baitute zehazten hainbat kasutan zein Foru Aldundi den eskuduna eragiketa zehatz batzuren aurrean. Bere ustez, foru-lurraldeek lotura puntuak adostea eta arautzea izango litzateke egokiena. Azkenik, Tributu Koordinazio Organoa izan zuen mintzagai. Organo honen akordioak balio juridikoren bat izatearen alde agertu zen.

Hurrengo hizlaria, Jose Luis Vivanco jauna, Bizkaiko Aldundiko Tributu ikuskatzailea, izan zen. Honek "Foru-lurraldeen eta Estatuko administrazioaren arteko erlazioak" aztertu zituen. Bere iritziz, Kontzertuak jasaten dituen liskarrak bere salbuespenezko jatorrian du erantzuna. Estatuko administrazio eta foru-lurraldeen arteko gatazka Kontzertuaren jatorrian dago, eta bere bizitza guztian zehar horrela izan da. Bestalde, bere iritziz, azken urteotan gatazka maila handitu egin da foru-lurraldeen tributu-mailako ahalmenak ere handitu egin direlako, eta foru-arau gehiago sartu direlako indarrean. Era berean, gatazkak jauzi kualitatibo eman du europar erakundearen partehartzearekin. "Bake fiskalarekin" Estatu barneko gatazkarekin amaitu nahi izan da, eta eredu horri jarraitzeko beharra adierazi zuen.

Ondoren, Arabako Aldundiko Tributu ikuskatzailea (eszedentea) den Miguel Zurita jaunak hartu zuen parte, "Kontzertu Ekonomikoaren zirrikituak" izenburua zuen hitzaldiarekin. Kontzertuak sortu zenetik jasan dituen gora-beherak zehaztu zituen. Bere sorrera eta ondorengo urteetan izandako berrikuntzak izan zituen aipagai, Arabako Kontzertuan egun indarrean dagoen agirira iritsiz.

Azkenik, Pedro Ugalde, Nafarroako Gobernuako Ekonomia Kontseilaritzako idazkari orokor teknikoak, hitz egin zuen, Hitzarmen Ekonomikoak jasandako liskarrak azalduz. Argi utzi zuen hasiera-hasieratik Hitzarmenak jasan dituen gatazkak Kontzertu Ekonomikoak jasan dituenak baino askoz ere gutxiago izan direla. Estatuko administrazioak, euskal foru-erakundeekin gertatzen ez den bezala, Nafarroako oso arau fiskal gutxi errekurritu izan ditu. Auzitegi Konstituzionalaren aurrean tarteraturiko errekurtsioak oso urriak izan dira, eta inoiz ez da arau nafarren aurkako sententziarik eman.

Jardunaldiari amaiera Josu Bergara jaunak, Bizkaiko ahaldu nagusiak, eman zion. Kontzertuak euskal autogobernuarentzat duen garrantzia azpimarratu zuen. Era berean, Kontzertuaren negoziaketan kontuan izan behar diren gai eta aukerei buruz gogoeta sakon bat egin behar dela aldarrikatu zuen.

4. Hirugarren jardunaldia

Hirugarren jardunaldia Donostian ospatu zen, "Kontzertu sistema eta Europar Batasuna" izenburupean. Kontzertuak europar erakunde eta araudiaren aurrean dituen eta izango dituen erronkak aztertzea zen bere helburua.

Antton Market, Gipuzkoako Ogasun eta Finantzen ahalduna izan zen jardunaldiaren irekiera hitzaldia eman zuena. Kontzertuak Europar Batasunean lekua izan behar duela aldarrikatu zuen. Kontzertua egun Estatu mailan onartua eta finkatua dagoen erakunde da, eta ahalagin bat egin beharko da Europa mailan ere finkatzeko. Beraz, Kontzertuaren egonkortasuna bermatzeko beharrezkoak diren pausoak eman beharko direla adierazi zuen.

Lehenengo hitzaldia, Joxe Mari Aizega jaunak, Mondragon Unibertsitateko irakasleak, eman zuen. "Europar erakundearen eskuhartzearen balantzea" egin zuen. Lehenik, eskuhartze hau Europa mailan oinarritzkoa den helburu batean kokatu zuen; alegia, merkatu bakarrerako oztopo diren neurrien aurkako borrokan hain zuzen ere. Zerga mailako harmonizazioaren bilakaera zein izan den aztertu zuen, eta egun Europar Batzordearen ekimenak azaldu. Batzordea "pakete fiskala" deritzon ekimenean ari da lanean; bertan jasotzen dira aurrezpenari buruzko direktiba-proposamena, interesen gaineko atxikipenen direktiba-proposamena eta "portaera kodea", zeinak lehiakortasunaren aurkako neurritzat hartzeko bete beharreko irizpideak jasotzen dituen. Azkenik, Estatuako laguntzei buruz hitz egin zuen, adieraziz Europar Batzordeak harmonizazio helburuak lortzeko erabiltzen duela Estatuako laguntza araudia. Araudi hau izan da, hain zuzen ere, foru-lurraldeen zenbait arauen aurka erabili izan dena.

Ondoren, Juan Lopez Rodriguez jaunak, Europar Batzordeko Fiskalitate eta Aduanen Batasunerako Zuzendaritza Orokorrean lanean ari den funtzionarioak, hitz egin zuen. Bere hitzaldia hiru gaiak osatu zuten. Batetik, egun indarrean dagoen europar zuzenbide fiskala aztertu zuen, adieraziz bere ezaugarri nagusiak direla merkatu bakarra oztopatzen duten neurri eta arauak ezabatzea eta europar hiritarren artean tratu fiskal ezberdinak ekiditea. Ondoren "pakete fiskala" deritzana aztertu zuen, batik bat aurrezpenaren direktiba eta "portaera kodea", azpimarratuz azken honen ondorioz Estatu kideek konpromiso bat hartzen dutela arau fiskal berriak onartzerakoan kontuan hartu behar dituzten irizpideei dagokienez. Azkenik, Luxemburgoko Justizia Auzitegiaren erabakiak aztertu zituen. Erabaki hauek diskriminazioaren aurkako printzipioa eta zirkulazio askatasuna dituzte ardatz.

Jarraian, "Foru-lurraldeek foru-arauen aurka ireki diren prozedimenduetan izandako

jarduera" aztertu zuten Antonio Creus jaunak, Cuatrecasas Bufeteko bazkideak, eta Marcos Araujo jaunak, Garrigues & Andersen Bufeteko bazkideak.

Creus jaunak Luxemburgoko Justizia Auzitegiako Abokatu Orokorraren, Saggio jaunaren, iritzia azpimarratu zituen. Bere ustez, Saggio jaunak ez du Kontzertuaren izaera ulertu, eta Espainia Europar Batasunera atxiki aurretik indarrean zegoen erregimen bat ondoren sortu diren erregimen berriekin nahastu du, eta hori onartezina da. Europar Batzordeak Estatuako laguntzen araudiaren erabilpena kritikatu zuen, esanez araudi hori beste helburu baterako onartu zela, eta egun harmonizazio helburuetarako erabiltzen ari dela. Bere iritziz, Batzordeak erasotu dituen neurriek tributu-zamaren geroratzea suposatzen dute, eta ez erabateko salbuespena. Neurri orokorrak dira, ez dira selektiboak. Eta azkenik, ez dute lehiakortasunaren aurkako ondorioz sortarazten.

Araujo jaunak ere antzeko iritzia azaldu zuen. Bere ustez, Batzordearen ekimenak europar eraikuntzan aurkitzen den tentsioan du bere izate arrazoia. Batetik, europar erakundeek europar integrazioa bultzatu nahi dute, eta bestetik, Estatuak beraien subiranotasuna defendatu nahian agertzen dira. Tentsio honetan foru-lurraldeak ahulezian aurkitzen dira, ez baitute espainiar Estatuaren babesik. Ondoren, estatuako laguntzen ezaugarriak aztertu zituen. Estatuako laguntzek selektiboak izan behar dute; orokorrak baldin badira ez dira Estatuako laguntza. Eta foru-lurraldeen pizgarri fiskalak ez dira selektiboak, orokorrak baizik. Jarraian, zera aztertu zuen: zer gertatuko ote litzatekeen pizgarri fiskalak Estatuako laguntza gisa aldarrikatuko balira eta enpresak gozatutako laguntzak itzultzera behartuko balira. Egoera honetan ezingo litzateke Batzordearen aurrean "konfidantza zilegia" aldarrikatu –alegia, enpresek pizgarriak zilegiak zirela uste zutela, eta horregatik egin zituztela inbertsioak–, eta ziur aski enpresek laguntzak itzuli beharko litzukete.

Ondoren Franco Fichera jaunak, Boloniako Unibertsitateko Tributu Zuzenbideko Katedradunak hartu zuen parte. Honek "Europako araudiaren ondorioak Estatuaren laguntzetan" aztertu zituen. Bere iritziz, Europa mailan kompetentzia fiskalak dituen edozein gobernu mailak printzipio eta ukanbehar batzuk errespetatu behar ditu. Eta foru-lurraldeek ere bai. Laguntza fiskalen araudiaren oinarria, merkatu bakarra oztopa dezaketen neurriak ezabatzea da. Foru-erakundearen arauak ere Estatuako laguntza aldarrika dezakete. Ondoren, Fichera jaunak foru-pizgarri fiskalak aztertu zituen zehatz-mehatz, eta adierazi zuen Estatuako laguntza bezala deklaratu daitezkeela. Bere iritziz, Europar Batasunak arau foraldek aztertzen dituen lurralde espainiarra bakarrik dela kontsideratzen du. Foru-lurraldeek ezin dute, beraz, Espainiako tributu-sistemaren

salbuespenik onartu Estatuko laguntzen esparruan erori gabe.

Jardunaldian zehar aipaturiko iritziak bata bestearekin alderatzearen, partaide guztien artean mahai ingurua osatu zen. Mahai inguruaren moderatze lanetan Ramon Falcon y Tella, Madrilgo Universidad Complutense-ko Finantza eta Tributu Zuzenbide Katedraduna aritu zen. Hasierako hitzaldi labur batean onartezintzat jo zuen foru-lurraldeen eta Estatu espainiarren arteko edozein ezberdintasun fiskal Estatuko laguntza deklaratzeko. Bere iritziz, ohitu egin behar dugu Bruselas eta Luxemburgorekin arazoak izaten, baina ez aipaturiko interpretazio orokor eta justifikazio gabeekin. Mahai inguruan parte hartu zutenek arestian aipatutako argudioak berretsi zituzten, eta argi utzi zuten beraien ustez foru-pizgarriak ez direla Estatuko laguntza. Kontrako iritzia azaldu zuen, arestian bezala, Fichera jaunak, berarentzat Estatuko laguntza baitira.

Azkenik, Kontzertuaren bilakaerarako alderdi politikoek izan dezaketen jarrera oinarrizkoa dela kontuan izanik, mahai inguru bat ospatu zen, Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak duten alderdi politiko guztietako ordezkariekin. Bertan izan ziren ondoren aipatutako diren alderdiak, beraien ordezkari bidez: Eusko Alderdi Jeltzalea (Xabier Albiztur jauna), Eusko Alkartasuna (Gorka Knörr jauna), Ezker Batua (Isabel López Aulestia andrea), Partido Popularra (Jose Luis Arrue jauna), Euskal Herritarrok (Xabier Olano jauna) eta Partido Socialista Obrero Español (Angel García Ronda jauna). Bakoitzak aldarrikapen labur bat egin zuen Kontzertuaren inguruan. Adostasun handia agertu zuten euskal autogobernurako oinarrizko erakunde bat dela eta bere etorkizuna bermatu behar dela azpimarratzerakoan.

Jardunaldia amaitzeko, Roman Sudupe jaunak, Gipuzkoako ahaldun nagusiak, bere hitzaldian adierazi zuen Kontzertuak abaguneetatik at egon behar duela. Era berean, defendatu zuen funtsezkoa dela negoziaketari begira helburu sozial, politiko eta ekonomikoak definitzea. Helburu horien artean, iraupen mugagabea, europar erakundearen aurrean beharrezko bermea eta tributu-ahalmen araugilea berreskuratzea aipatu zituen, europar harmonizazio fiskalaren aldeko apustu garbia eginez.

5. Laugarren jardunaldia

Laugarren eta azken jardunaldia Gasteizen ospatu zen. Jardunaldi honetan Kontzertuak etorkizunera begira izan dezakeen bilakaera jorratu nahi zen. Bere izenburua esanguratsua da: "Kontzertu eta Hitzarmenaren aukerak etorkizunera begira".

Jardunaldiaren hasierako hitzaldia Juan Antonio Zarate, Arabako Ogasun eta Finantzen ahaldunak eman zuen.

Ondoren, Pascual Jover jaunak, Vital Kutzako presidentek, "Kontzertu Ekonomikoaren inguruko gogoetak" izenburua zuen hitzaldia eskaini zuen. Bere iritziz, Kontzertua euskal burujabetzarako oinarrizko elementua izanik, bere ezabapena ulergaitza izango litzateke, bai ikuspegi funtzionaltik, baita ikuspegi politiko batetik ere. Ezinezkoa da euskal Estatutua Kontzerturik gabe. Jarraian, Kontzertuaren honako ezaugarriak aipatu zituen: hitzartutako sistema da; oinarrizko erakundea da, zeinaren ondorioz Estatuko Ogasuna foru-lurraldeetako ogasunek ordeztzen duten; eta foru-lurraldeek beraien tributu-sistema propioa onartzeko ahalmena dute, Estatuko sistemaren berdina izan beharrik gabe. Jover jaunaren iritziz, Kontzertua oso ongi egokitu da aldaketa ekonomiko eta fiskaletara. Aldi berean, Kontzertua Europar azaltzeko eta ulertarazteko beharra azpimarratu zuen. Izatez, euskal erkidegoko ordezkariak europar harmonizazio prozesuan partaidetza zuzena izan beharko lukete.

Ondoren, Ramon Rabanera Arabako ahaldun nagusiaren txanda izan zen. Arabar eta euskal garapen instituzionalerako Kontzertua oinarrizko erakunde bat dela adierazi zuen. Bere iritziz, etorkizunera begira ekidin egin behar da orain arte Kontzertuak jasan duen gatazka maila, Estatuko administrazioarekin koordinazioa eta elkarrizketa hobetuz. Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidego mailan beharrezko arau aldaketak egiteko beharra azaldu zuen, foru-lurraldeen arteko erlazioak hobetearren.

Bukatzeko, Idoia Zenarruzabeitia andreak, Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde eta Ogasun eta Finantzen kontseilariak hitzaldi bat eskaini zuen. Kontzertuak euskal autogobernuarentzat duen oinarrizko garrantzia azpimarratzeaz gain, negoziaketari ekiteko beharra adierazi zuen, negoziaketen ardatz nagusiak Kontzertuak jasan duen gatazka maila gutxitzea izan behar duelarik. Aldi berean, Kontzertuaren iraupen mugagabea defendatu zuen, ez baitauka zentzurik Kontzertua bezalako oinarrizko erakunde batean iraupen eta edukia periodikoki negoziatzen aritzeak. Azkenik, adierazi zuen negoziaketak irtenbidea eman beharko liokeela euskal erakundeek Europar izan dezaketen partehartzeari. Beste herrialdeetan Estatu mailakoak ez diren botereen partehartzea egituratu den bezala, oinarrizkoa da euskal erakundearen partaidetza ziurtatzea.

6. Amaitzeko

Eusko Ikaskuntzak 2000 urtean prestatu zuen egitasmoa, 2000 eta 2001. urteetan gauzatu

da. Ahalegina ez zen erraza, ez antolaketa aldetik, ezta lau jardunaldietan beharrezkoak ziren partaideen ikuspegitik. Esan daiteke Euskal Herrian Kontzertuaren inguruan zer esana izan dezaketen pertsona gehienak aritu direla jardunaldiren batean parte hartzen. Lau foruerakundeetako ordezkariak hartu dute parte. Euskal Unibertsitateetako irakasle eta adituak ere bertan izan dira, eta baita gai honen inguruan protagonismoa duten edo izan duten profesionalak ere.

Lerro labur hauetan, bertan gertatutakoa islatzen saiatu naiz. Hala ere, jakin dezala irakurleak jardunaldietan hitzez hitz esandakoa gutxi barru argitaratuko dela.

Jardunaldietan aipatu diren iritzi eta gogoeta guztietatik, azpimarratu beharreko ondorio bat sortzen da, dudarik gabe: Kontzertua euskal autogobernurako oinarrizko erakundea dela, eta bere iraupena eta etorkizuna bermatu egin behar direla.